

71. EUSKAL SOZIOMETROA: EUSKADIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOA (2019ko azaroa) Prensa oharra

SARRERA

71. Euskal Soziometro honen gai nagusia Euskadiko Administrazio Publikoa izan da. Egoera ekonomiko eta politikoarekin lotutako beste gai batzuk ere aztertu dira. Landa lana 2019ko urriaren 1a eta 9a bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Euskadiko egoeraren balorazio positiboa

Biztanleen %63k diote Euskadiko egoera politikoa ona edo oso ona dela, nahiz eta portzentajea maitzekoa baino zertxobait txikiagoa den. Gainera, azaroaren 10eko hauteskunde orokorrak baino hilabete lehenago egin zen inkesta honetan, %83k uste zuten Espainiaren egoera politikoa txarra edo oso txarra zela (urte bereko maitzean baino 13 puntu gehiago).

Halaber, %67k uste dute Euskadiren egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela, eta pertzepzio positiboaren goranzko joerak eten bat izan duen arren, altua izaten jarraitzen du azken urteekin alderatuta. Espainiaren egoera ekonomikorekin balorazioa dezente okerragoa da (% 18k soilik uste du ona edo oso ona dela). Europarekin alderatuta, EAEko pertzepzio positiboa Europako batez bestekoaren gainetik dago.

Lan-egoera pertsonalari dagokionez, %63k uste du bere lan-egoera pertsonala oso edo nahikoa ona dela, 2018 urtearekin alderatuta hobera egin duelarik. Aldagai horren balorazio positiboa ere Europako batez bestekoaren gainetik dago.

Herritarren ustez, Euskadiko arazo nagusiak berriz ere lan merkatuarekin lotutakoak dira (%59k aipatu dituzte hiru arazo nagusien artean), nahiz eta beheranzko joerari eusten dioten. Askoz gutxiago aipatu dira ondorengo arazoak: etxebizitza eta etxe gabetzeak (%14), immigrazioa (%11), egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoa (%10), pentsioak (%10), delinkuentzia eta segurtasun falta (%10), arazo ekonomikoak (%9), zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura eta laguntzak (7%) eta osasungintza (%6).

Askoz gutxiago aipatzen diren arren, nabarmendu, batez ere pentsioekin eta herritarren segurtasun ezarekin lotutako arazoaren goranzko joera ematen dela. Bestalde, egoera politikorekin eta arazo ekonomikoekin lotutako arazoak CISek Espainiarentzat erregistratutakoaren oso azpitik daude.

GOBERNUAREN ERRONKAK ETA GASTU PUBLIKOA

Enplegua sortzea, Euskadiko erronkarik handiena eta Eusko Jaurlaritzaren lehentasunezko helburu

Herritarren arabera, Euskadik hurrengo urteetan izango duen erronkarik handiena langabezia da (% 59). Neurri apalagoan, baina nabarmen aipatu dira ere biztanleriaren zahartzea (% 37), pentsioak (% 36), desberdintasun sozialak (% 35) eta klima-aldaketa (% 28).

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzaren lehentasunezko helburuak enplegua sortzea (% 41) eta horrekin batera lan-baldintzak kontrolatzea eta hobetzea (% 5), pentsioak (% 19) eta klima-aldaketa (% 13) izan beharko lirateke. Baita immigrazioa (% 10), ekonomia bultzatzea (% 10) eta desberdintasunak eta pobrezia gainditzea ere (% 10).

Baliabide publikoen banaketan osasuna eta hezkuntza lehentasunezko arloak

Herritarren ustez, baliabide publiko gehien jaso behar dituzten arloak osasuna eta hezkuntza dira (9,3 eta 9,2, hurrenez hurren; 0tik "batere baliabiderik ez", 10era "baliabide asko" doan eskala batean). 10 puntutik 8tik gora lan-politiketarako, gizarte zerbitzuetarako, etxebizitzarako, ingurumenerako, justiziarako eta kulturarako, eta 7tik gora berrikuntza teknologikorako, Ertzaintzarako eta segurtasunerako, azpiegiturarako, hizkuntza-politikarako eta etorkinen harrerarako. 2010. eta 2011. urteekin alderatuta, handitu egin da herritarren arabera arlo horietara guztietara bideratu beharreko baliabide kopurua, batez ere etorkinen harrerarako.

Gainera, argi eta garbi, osasun-arretak jarraitzen du izaten aurrekontu murrizketarik onartuko ez litzatekeen arloa (% 47).

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Administrazio publikoen irudi positiboa

Oro har, zerbitzu publikoen irudia positiboa da Euskadin (% 80rentzat oso edo nahiko positiboa); gainera, portzentaje hori Europar Batasuneko batez bestekoa baino handiagoa da. Arloka, modu positiboagoan baloratzen da osasun-zerbitzuen funtzionamendua (% 84k uste du ondo funtzionatzen dutela), irakaskuntza publikoarena (% 79) eta Ertzaintzarena (% 75); gutxien baloratzen direnak, berriz, etxebizitza sustatzeko zerbitzuak (% 35), justizia-administrazioa (% 41) eta Lanbide (% 47) dira. Zuzenean zerbitzuaren funtzionamendua da gutxien ezagutzen dena (% 46k ez daki edo ez dio erantzun zerbitzu horren funtzionamenduaren kalitateari buruzko galderari). Bilakaerari dagokionez, azken neurketa honetan gehien hobetzen diren zerbitzuak Ertzaintza eta gizarte-zerbitzuak dira.

Euskadiko zerbitzu publikoek etorkizunean izango duten bilakaerari dagokionez, aurreikuspenak oso positiboak dira, eta ia erdiek espero dute datozen urteetan hobera egingo dutela (% 48), eta % 30ak dauden bezala mantenduko direla. % 12k soilik aurreikusten dute okerrera egingo dutela.

Enpresa pribatuek emandako zerbitzuekin alderatuta, administrazio publikoek kudeatutako zerbitzuak hobeak direla uste dute herritarren % 42k, eta % 26k kalitate berdina dutela. Inkesta erantzun duten pertsonen % 16k soilik uste dute enpresa pribatuek kudeatzen dituzten zerbitzuak hobeak direla. 2010. urtearekin alderatuta, asko handitu da administrazio publikoek emandako zerbitzuen aldeko iritzia. Hala ere, gehienek uste dute bien artean lankidetzaz handiagoa egon beharko litzatekeela (% 51).

Administrazioaren gaztetzea beharrezko aldaketa etorkizuneko erronkei aurre egiteko

Euskal gizartean jazoko diren aldaketei aurre egiteko Euskadiko Administrazioak prest ote dauden galdetuta, % 41ek uste du Administrazioak aldaketa batzuk egin beharko dituela, eta % 17k aldaketa asko. Aldaketa horien artean aipatuena dira *gazteak kontratatzea eta administrazioa gaztetzea* (% 52), *funtzionarioei etengabeko prestakuntza ematea* (% 30) eta *herritarrentzako informazioaren gardentasuna areagotzea* (% 27), besteak beste.

Iritzia oso banatuta dago, zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzea garrantzitsua izan arren baliabide horiek zerbitzu horiek emateko erabiltzea hobe dela uste dutenen artean (% 44), eta ebaluazio hori egitea funtsezkoa dela uste dutenen artean (% 40). Ebaluazio hori egitearen aldeko apustua egiten dutenen % 83ren ustez, ebaluazio horren ondorioen arabera izan beharko liriteke funtzionarioen lan-baldintzak.

Hautatze prozesuetan proba subjektiboak egitearen eta askotariko gaitasunak baloratzearen aldeko iritzia

Herritarren erdiek uste dute euskal administrazio publikoetan egiten diren hautaprobek bermatzen dutela beti (% 16) edo ia beti (% 33) profesional onenak aukeratuko direla, eta % 33k ez dute hala uste.

Proba horietan baloratu beharko litzatekeenari dagokionez, lanpostuarekin lotutako titulazioaz gain (% 55), aurreko lan-esperientzia (% 30) eta alderdi kualitatiboak nabarmentzen dira, hala nola, egoera aldakorretara egokitze gaitasuna (% 23), taldean lan egiteko gaitasuna (% 23) eta enpatia pertsonala (% 22).

Zentzu berean, % 57k uste du azterketa eta proba objektiboez gain hautatze prozesuetan ere proba subjektiboak egin beharko liritekeela, eta % 69k, berriz, gaiari buruzko ezagutzez gain, beste gaitasun batzuk ere baloratu beharko liritekeela, hala nola ikasteko eta talde-lanerako gaitasuna edo nortasuna.

Hamar pertsonetatik seik nahiago dute bulegoetara joan administrazio-izapideak egiteko

% 39k uste dute herritarrek zailtasun asko edo dezente dituztela administrazio publikoen bulegoetan gestioak edo izapideak egiteko, eta % 25en ustez zailtasun gutxi dituzte. Zailtasun horien artean, gehiegizko burokrazia nabarmentzen da (% 69).

Elkarriketatutako pertsonen % 70ek gestioaren edo kontsultaren bat egin dute administrazio publikoetan aurten. Horietatik %74 oso edo nahiko gustura geratu dira jasotako zerbitzuarekin. Gogobetetzea 2010 eta 2011ko aurreko neurketak baino pixka bat handiagoa da.

Gaur egun, oraindik ere, herritarren % 61ek nahiago du administrazio-izapideak bulegora zuzenean joanda egin, % 34 dira nahiago dutenak Internet bidez egin. Dena dela, % 69k uste du oso edo nahiko beharrezkoa dela Administrazio Publikoak dirua inbertitzea teknologia berriak eguneratzeko, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.

Zentzu horretan, teknologia berriak sartzeak erantzun-denborak (% 73), zerbitzuen eskuragarritasuna (% 67) eta administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa (% 56) hobetuko litzuke. Herritarrenganako tratua hobera egingo lukeen galdetuta, iritzi desberdina dago: % 46k baietz uste du, % 24k horretan ez lukeela eraginik izango eta % 19k okerrera egingo lukeela.

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Iñigo Urkullu lehendakaria da berriz ere balorazio onena jaso duen liderra

EAJ da berriz ere begikotasun handiena sortzen duen alderdia (5,1 puntu, 0tik 10erako eskalan), ondoren datoz EH Bildu (4,0), Elkarrekin Podemos (3,9) eta PSE-EE (3,7). PP (1,6) da baloraziorik txikiena duena berriz ere.

Buruzagi politikoen balorazioan, Iñigo Urkullu Lehendakaria (5,7) eta Andoni Ortuzar (5,1) dira 0tik 10era bitarteko eskalan bosta gaingitu duten bakarrak. Horien atzetik daude Idoia Mendia eta Lander Martinez (4,2 biak) eta Arnaldo Otegi (4,0). Azken postuan, Alfonso Alonso (1,9). Buruzagi guztiek behera egin dute pixka bat aurreko Soziometroarekin alderatuta.

Independentziari buruzko iritziari dagokionez, biztanleen % 34 ez dago ados, % 31 alde edo kontra leudeke egoeraren arabera, eta % 20 ados dago. % 15ek ez du erantzun.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.170 lagunek osatua da. Elkarriketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,2$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2019ko urriaren 1a eta 9a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak